

BEZEROAK

Bezero-segmentuari dagokionez, guraso berriei, gurasoak izandakoei, haur-eskolei eta haur-hezkuntzako proiektuak martxan jartzen duten edozein elkarteei (ludotekak, gaztetxeak, udalekuak...) eskaintzen diogun zerbitzua da. Nahiz eta gure bezero-segmentua nahiko zehatza izan, gizarte osoari eskaintzen diogun proiektua da, edozein pertsonak haur hezkuntzako materialaren beharra izan ahal duelako.

Eskaintzen ditugun produktuak bigarren eskukoak direla kontuan izanik, demografikoki maila ekonomiko erdi-baxuko auzoan jarriko genuke gure negozioa, maila altua duten auzoetan gure negozioa ez luke indarrik izango eta etekin gutxi aterako genukeela pentsatzen dugu.

Lehiakideei dagokionez, haur hezkuntzako edozein materiala saltzen duten enpresak, dendak, negozioak... izango dira, baita bigarren eskuko produktuak saltzen dituzten edozein plataforma digitalak ere izango dira.